

EUSKARAREN ERABILPEN EZ SEXISTA

Amelia Barquín (HUHEZI fakultatea, Mondragon Unibertsitatea)

Luzaro pentsatu da euskara ez zela beste hizkuntza batzuk bezain sexista

Zergatik?

- ▶ Euskara ez da “genero hizkuntza bat”
- ▶ Euskarak ez du maskulino generikoa edo orokorra

Baina

- ▶ Euskararen ere badago generoa
- ▶ Batzuetan desegoki adierazten dugu
- ▶ Genero hizkuntzek ez dute zertan “sexistagoak” izan

GENEROA ADITZEAN: HITANOA

Hiztunak, solaskidearen generoa kontuan hartuta, aditzean marka desberdina utziko du generoaren arabera:

- “erretzeari utzi iezaion!” (emakume bati, *noka*)
- “erretzeari utzi iezaio**k**!” (gizon bati, *toka*).

Solaskidea plurala, mistoa, ezezaguna denean?

- ▶ *Erreatzeari utzi iezaio*
- ▶ *Kirola gustatzen zaio*
- ▶ *Ekar ezak hire proposamena*
- ▶ *Kanta ezak euskalduna, kanta ezak hire herrira*
- ▶ *Euskal Herria diagu zain*

- ▶ *Erretzeari utzi iezaio*k → *Erretzeari utzi*
- ▶ *Kirola gustatzen zaik* → *Kirola gustatzen zaizu*
- ▶ *Ekar ezak hire proposamena* → *Ekarri hire | zure proposamena*
- ▶ *Kanta ezak euskalduna, kanta ezak hire herrira* → *Kanta ezazu euskalduna, kanta ezazu zure herrira*
- ▶ *Euskal Herria diagu zain* → *Euskal Herria dugu zain*

Antton Olariaga marrazkilariak “Zakilixut” izeneko komiki-tiran (*Berria* egunkarian), horrela zuzentzen zaio tiraren protagonista egunkariaren irakurleari:

- ▶ *Bestela, amaitu ondoren jasoko **dunk** fruiturik lehorrena*
- ▶ *Infernuetarako jaitsieran, ustez galdutako trenetik jaitsarazten **gaitiztenk***

Antzekoak:

- ▶ **Wazemank**”
- ▶ “Anjel Alkain. Harrapazank!”

GIZON hitza

Tradizioan eta literaturan “gizona” hitza erabili da bai gizonak bakarrik bai gizonak eta emakumeak izendatzeko.

Anbiguotasuna ekiditeko “gizona” zentzu espezifikoa (pertsonek izendatzeko) soilik erabiltzea komeni da.

- ▶ **Auzo horretan bost mila **gizon** bizi dira.*
- ▶ **Non daude ideia handiak eta sakonak dituzten **gizonak**? Non daude herri honek independentzia behar duela etengabe aldarrikatuko duten politikariak?* (egunkari artikuluan).
- ▶ ** **Gizonak** badu inguru latz bat menperatzeko premia...* (“Izarren hautsa” abestia).

- ▶ *Auzo horretan bost mila **gizaki** / **pertsona** bizi dira.*
- ▶ *Non daude ideia handiak eta sakonak dituzten **pertsonak** / **gizakiak**? Non daude herri honek independentzia behar duela etengabe aldarrikatuko duten politikariak?*
- ▶ ***Gizakiak** / **pertsonak** badu inguru latz bat menperatzeko premia...*

“GIZ” – erroa daukaten hitzak generiko edo orokor moduan erabiltzea?

Kontra:

- ▶ “Giz” – agertzen da zentzu generikoa dauzkaten hitzetan, baina baita espezifikoa daukatenetan ere.

–**Generikoa:** *gizakia, gizartea, gizadia, gizabidea, gizabidetsua, gizalegea, gizabanakoa, gizataldea, gizateria, gizajendea, gizahilketa, gizahiltzailea, gizatiarra, gizatasuna, gizakuntza...*

–**Espezifikoa:** *gizasemea, gizagaixoa, gizajoa (gajoa emakumeentzat), gizakotea, gizakoia, gizagaldua, gizon, gizonki, gizontasuna, gizonkeria...*

- ▶ Iparraldean egun “gizaki” maskulino moduan erabiltzen da “emazteki” femeninoaren aldean.
- ▶ “Gizakia” hitzak bi zentzuekin agertzen da zenbait hiztegitan:

–**Gizaki:** 1. (*Batez ere Nafarroan. Gutxi erabiltzen den adiera*). Gizasemea. *Gizakiak eta emakumeak*. 2. Giza arrazako banakoa, arra nahiz emea. [...] [Euskal Hiztegia]

–**Gizaki:** 1. Hombre, ser humano. [Adibideak]. 2. Hombre, varón. [adibideak].

(*3000 hiztegia*-n, berriz, zentzu generikoa baino ez da agertzen.

gizakia > jendea (Iparraldeko toki batzuetan erabiltzen den bezala), *pertsona, laguna, jendakia*

gizartea < jendarte, sozietatea, gizon-emakumeak

gizalegea > jendetasuna

gizaldia > belaunaldia

giza- > humano (*harreman humanoak eta eskubide humanoak... eta ez giza harremanak eta giza eskubideak*); *soziala* (*arazo soziala eta ez gizarte arazoa edo giza arazoa*)...

Arazoak dituzte:

gizakia > *jendea* eta *jendakia* hitzek zentzu kolektiboa

gizartea > *jendarte* hitzak talde txikia esan nahi du

giza- > *humano* hitza latineko homo, -inis hitzatik dator (gazt. *hombre* eta fr. *homme* eman dituenak)

Arazorik gabe:

pertsona, laguna, sozietatea, soziala, gizon-emakumeak, belaunaldia, jendetasuna

Alde

- Hitzek haien bidea egiten dute eta esanahiak ere garatzen dira: ohikoa da hitz batek daukan esanahia ez izatea beste garai batean izan duena. Hiztun arruntek (ez filologoek, ez hizkuntzalariek, ez hizkuntzaren ikerlariek...) ez dute hitzen etimologiaren eta bilakaeraren kontzientzia:

–*erdara* hitza *erdi era* da

–*bagina* hitza `ezpataren zorroa´ zen latinez

–*humano* hitza latineko *homo*, –*inis* hitzetik dator, *hombre* hitza ere eman duena

–*gorrotoa* hitza latin arrunteko *corruptu*–tik dator

GIZONA hitz elkartuetan

- ▶ *lege-gizona, enpresa-gizona, industria-gizona, kultur gizona, elizgizona, plazagizona, itsasgizona...*

Erreferentzia egiten badio talde anitz bati edo ezagutu gabeko generoko pertsona bati, “gizon” osagaia aldatu beharko dugu, “-ari” atzizkia, “langile”, “pertsona” etab. erabiliz:

- ▶ *legelaria, enpresaria, industrialaria, kultur-pertsona, eliz-pertsona, plaza-pertsona, itsas-langilea...*
- ▶ Testuinguruaren arabera: *kultur gizona, kultur emakumea, kultur jendea...*

GENEROA daukaten izenak

- Senidetasuna adierazten duten izen generodun batzuk daude: *ama, amona, izeba, erraina, alaba, ahizpa, arreba...* / *aita, aitona, osaba, suhia, semea, anaia, neba...*

GENEROA daukaten izenen plurala edo generikoa

- ▶ Femenino eta maskulinoaren elkarteak erabili behar da: *seme-alabak, neska-mutilak, andre-gizonak, jaun-andreak...*
- ▶ Izen maskulinoak (*semea, mutila, jauna...*) desegoki erabiltzen dira maiz, bi generoak izendatzeko.
- ▶ Adibide oker batzuk:
- ▶ **Zenbat seme dituzu?* → *Zenbat seme-alaba dituzu?* / *Zenbat ume dituzu?*
- ▶ **Kanguru hau triste dago ez baitauka semerik* → *ez baitauka umerik (kumerik)*

- ▶ **Ikasleen anai-arrebak ere etor daitezke → Ikasleen neba-arrebak ere etor daitezke*
- ▶ **Eskolako maisu guztiak gonbidatuta daude → Eskolako maisu-maistra / irakasle guztiak gonbidatuta daude*
- ▶ **Zure aitak etorriko dira? → Zure gurasoak etorriko dira?; zuen aita-amak etorriko dira?*
- ▶ **Osabak etorri dira → Osaba-izebak etorri dira*
- ▶ **Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara → guztiok neba-arrebak gara*

- ▶ Zergatik “aiton–amonak”, “aita–amak”, “osaba–izebak”, “ama–semeak”, “aita–alabak”...?
 - Silaba gutxiago daukan hitza aurrean doa
 - Silaben kopuru berbera daukatenean artean beti aurkitu dugu maskulinoa aurrean: “aitona–amonak”, “aita–amak”, “osaba–izebak”...
- ▶ Baina “gizon–andreak” eta “andre–gizonak”

Onintza Iruretak (2014–2–6):

- “Sarri amona–aitonen prestutasuna izaten da zaintza estrategiaren oinarria eta hortik abiatuta antolatzen da umeak artatzeko gainerako eskema.”
- “Zer gertatu da parkeak amona–aitonaz beteta egoteko?”

Idurre Eskisabel (2014–3–11)

- “[...] alaba–semeak inoiz baino prestatu eta kosmopolitago hazten gertuenerakoak.

“-SA” bukaerako femeninoak

- ▶ Zubereran “-sa” atzizkia izen femeninoak osatzeko erabiltzen da. Atzizkia daramaten hitz batzuk, bestalde, berriak dira edo maileguak.
- ▶ Zenbait adibide:

alkatesa, aktorea, jainkosa, alarguntsa, artzaintsa, laborarisa, ostalera, idazlesa, betsolarisa, idazkarisa, langilea, euskaltzaintsa, iragarlesa, dantzarisa, ikaslesa, doktoresa, abadesa, dukesa...

- ▶ Batzuk gero eta hedatuago daude: “alkatesa”, “aktoresa”...
- ▶ Politikoki zuzena izateko joera, gaztelanian eta frantsesean bezala
- ▶ Hedatzen badira, “bikoteak” joango dira sortzen, frantsesa eta gaztelaniaren erara (*doctora / doctor; doctoresse / docteur*).
- ▶ “-Sa” atzizkiak daukan ondorio bat: “-sa” atzizkirik gabeko izena maskulino bihurtzen du. “Langile” hitzak, berez, ez dauka generorik. Baina “langilesa” erabiltzen badugu, “langile” hitza espezifikagoa geldituko da, gizonentzat bakarrik.
- ▶ Ondorioz, talde mistoak izendatzeko elkarteak beharko ditugu:

**Udaletxeko langile-langilesa guztiak daude gonbidatuta*

Proposamena

- ▶ Ez erabiltzea -sa bukaera
- ▶ Testuak berak edo testuinguruak adierazten du askotan pertsonaren generoa. Pertsonaren generoa nabarmendu nahi izatekotan: *emakumezko aktorea, emakume alarguna, neska dantzaria, gizon dantzaria...*

- ▶ Adibideak:

**Edurne Perez alkatesak museo berria bisitatu zuen →
Edurne Perez alkateak / alkate andreak museo berria
bisitatu zuen*

**Aktorea onenaren saria Kidmanek jaso zuen →
Emakumezko aktore onenaren saria Kidmanek jaso
zuen*

Asmakizuna

“Aita–semeak motorrez doaz. Istripua izaten dute eta aita bertan hiltzen da. Semea larri zaurituta geratzen da. Anbulantzia batek ospitale hurbilenera eramaten du eta han denak hasten dira zirujauaren bila. Zirujauak oihu egiten du gaztea ikustean: “Ezin diot ebakuntzarik egin, nire semea da!”

“Un padre va en moto con su hijo. Tienen un accidente y el padre muere en el acto. El hijo queda malherido. Una ambulancia lo lleva al hospital más próximo y allí todo el mundo busca al cirujano de guardia, quien, al ver al muchacho, exclama: ‘No puedo operarle, es mi hijo’”.

- ▶ (Álvaro García Messeguer *Lenguaje y discriminación sexual*, Barcelona, 1977).

-Soluzioa? Zirujaua ama zela.

-Hori al da soluzio bakarra?

Hiztunon inertzia mentalak

PREMIAZKOAK EZ DIREN ESTRATEGIAK

Genero gramatikala daukaten hizkuntzek hainbat estrategia erabiltzen dituzte maskulino generikoa saihesteko, baina euskaraz ez dira beharrezkoak:

- ▶ **Programa populazio erretzailearentzat eginda dago*

Gaztelaniaren kalkoa da: *El programa es para los fumadores* → *El programa es para la población fumadora*

Egokia: *Programa erretzaileentzat eginda dago*

- ▶ **Bostgarren mailako irakasleriak txango bat prestatu du datorren larunbaterako*

Gaztelaniaren kalkoa da:

Los profesores de quinto han preparado una excursión para el próximo sábado → El profesorado de quinto han preparado una excursión para el próximo sábado

Egokia:

Bostgarren mailako irakasleek / maisu-maistrek txango bat prestatu dute datorren larunbaterako

ASIMETRIA LEXIKOAN

Hitz “baliokide” batzuek ez dute esanahi berbera, edo ñabarduna desberdinak dauzkate emakumeei eta gizonei aplikatzen zaizkienean. Emakumeei dagozkenez, oro har, esanahi mugatuagoa edo konnotazio peioratiboagoak dauzkate.

- ▶ **Agure.** Adineko gizona. [...] / **Atso.** Emakume zaharra. (*Gehienetan gutxiespenezko zentzua du gaur*).
- ▶ **Zakil:** Tontoa, mozoloa, baboa... / **Alu:** esangura zehatzik gabeko iraina da. “Alua” iraina, baina, askoz gehiago erabiltzen da “zakila” baino

(Euskal hiztegian:)

- ▶ **Potro.** (*Hitz arrunta*). Barrabila. *Horiek dituk potroak!:* Hori duk ausartia! // *Potro jorran (erabilera arrunta):* ezer egin gabe.
 - ▶ **Barrabil.** [...]. **Barrabilak izan / eduki** (*erabilera arrunta*). 1. Atreverse, tener cojones. 2. Tener cara.
- “Obarioak izatea”: *Neska horrek obarioak dauzka!*

Andereño. 1. Emakume ezkongabea. (*Batez ere titulu gisa erabiltzen da, deituraren ondoan*). Ikus *andre*.
Urrutia andereñoaren lan bat. 2. Ikastoletako maistra.
Irakasleak eta andereñoak.

- ▶ Euskaraz ez dago tratamendu berezi bat “gizon ezkongabearentzat”.
- ▶ Proposamena: “andrea” emakume guztientzako, baita emakume gazteentzat ere (“jaunaren” baliokidea da).
- ▶ Eta “maistra” moduan? Garai bateko errealitatearen isla da, zeinetan lanbide hori batez ere emakume gazte ezkongabeek egiten baitzuten. Onargarria da?

- ▶ **Gizon portatu**
- ▶ **Maisu lana, maisutasunez**
- ▶ **Txapela eta txapelketa** (“Txapela buruan ibili munduan”; “gai horiek, oso anitzak izan arren, txapela berbera daukate”).
- ▶ **Ama hizkuntza?**

“NESKA” ETA “EMAKUME” IRAIN MODUAN

Irain moduan, gizionei eta mutikoei zuzentzen zaizkie. Non: kalean, umeentzako pelikuletan, marrazki bizidunean...

Emakumeen edo nesken inguruko estereotipoekin lotuta daude: neskak eta emakumeak dira berritsuak, pinpirinak, txepelak, tuntunak...

- ▶ *Aizu, neska txotxolo baten moduan jokutzen ari zara!*
- ▶ *Emakume negarti bat dirudizu!*
- ▶ *Ez daukazue potrorik, ala? Zer zarete zuek, neska batzuk?*
- ▶ *Neskaaaaatxa, neskaaaaatxa!*
- ▶ *Beti txutxumutxuka, emakumeak bezala!*
- ▶ *Atso kalakariak zarete benetan!*

JAUZI SEMANTIKOA

- ▶ Termino bat erabiltzen da generikoa (emakume eta gizonentzako) dela ulertaraziz, eta gero, momentu jakin batean, aditzera ematen da termino hori ez zela benetan orokorra, baizik eta maskulinoa soilik.
- ▶ Igorle ia denak gizonak dira, mota askotarikoak, ez soilik kontserbadoreenak.
- ▶ Fenomenoa beste hizkuntzetan ere gertatzen da

- ▶ *Gelako haurrek ere portaera hori daukate askotan neskekiko*

Egokia:

- ▶ *Gelako mutilek ere portaera hori daukate askotan neskekiko*

- ▶ *Irakasleak eta andereñoak*

Egokia:

- ▶ *Maisuak eta andereñoak / irakasleak*

ANDROZENTRISMOA

Gizona munduaren ardatza eta neurria da. Batzuetan badirudi mundua gizonek bakarrik osatzen dute:

- ▶ *Frantziako iraultzaren ondorioz **sufragio unibertsala** ezarri zen*
- ▶ ***Atenastarrek** bozketaren bidez aukeratzen zituzten **ordezkoak***
Egokia:
- ▶ *Frantziar iraultzaren ondorioz **gizon guztientzako** **sufragioa** ezarri zen*
- ▶ ***Gizon atenastarrek** bozketaren bidez aukeratzen zituzten **ordezkoak**, **horiek ere gizonak***

Eguneroko bizitzan?

- ▶ Putada bat da
- ▶ Baina zelako putakumea zaren!
- ▶ Ipurditik sartu dezala
- ▶ Zoaz zuloatik hartzera, popatik hartzera
- ▶ Baina ze marikoia zaren
- ▶ Hori marikoikeria da
- ▶ Marika azkena!
- ▶ Ijito batzuk dira
- ▶ Familia horretan ijitoen moduan dabilta
- ▶ Txinatarren lana da hori
- ▶ Horrela bi txori harrikada batez joko ditut
- ▶ ...

Asimetria mezuetan

- ▶ *Natalie Portman ederrak eta Robert de Niro errekonozituak sari bana jaso zituzten ekitaldian → Natalie Portman eta Robert de Niro aktore errekonozituek sari bana jaso zituzten ekitaldian*
- ▶ *Gorputz ederrak hondartzan*
- ▶ *Jendetza bildu zen inaugurazioan. Emakumeak, dotore jantzita [...]*
- ▶ *Garmendia jaunak eta Estitxuk aurkeztu dute txostena → Garmendia jaunak eta Díaz de Alda andreak aurkeztu dute txostena*

- ▶ *Egun on denoi eta ongi etorri kongresu honetara. Josu Agirre alkate jaunak hartuko du hitza lehendabizi eta ondoren Mirenek eta Nekanek ekitaldiaren programa azalduko digute.*

Egokia:

Egun on denoi eta ongi etorri kongresu honetara. Josu Agirre alkate[jaun]ak hartuko du hitza lehendabizi eta ondoren Miren Linazasoro fakultate honetako dekanok eta Nekane Gorostiza bertako ikerketa zuzendariak ekitaldiaren programa azalduko digute.

Simetriaren araua

- ▶ *Robert de Niro ederrak eta Natalie Portman errekonozituak sari bana jaso zituzten ekitaldian*
- ▶ *Díaz de Alda andreak eta Joseluk aurkeztu dute txostena*